



Gizarteratzea ardatz dutela, 50 urte lanean

Donostian hasi zuen ibilbidea Aspace Gipuzkoak, orain dela 50 urte. Bailaran, Bergaran zabaldu zuten lehenengo zentroa; egun, sei dituzte. Azaroaren 23an ospakizun ekitaldia egingo dute Kulturaten, Arrasaten. Testua: **Arantzazu Ezkibel Galdos**. Argazkiak: **Aspace eta A.E.G.**

G arun paralisia dutenen bizi-kalitatea hobetzen lanean dihardu Aspace Gipuzkoak azken 50 urteetan. Guraso talde batek sortu zuen elkarte, 1971n, Donostian. Garun paralisia zutenei eskolatzea, fisioterapia, logopedia, okupazio-terapia... eskaintzen hasi ziren. Donostian hasitako ibilbidea berehala zabaldu zen Gipuzkoara: 1976an, Bergarako egoitza zabaldu zuten – Eibarren eta beste zenbait herritan ere zabaldu zituzten egoitzak–. Administrazioaren laguntzaz gain, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialaren lankidetzaz garrantzitsua izan zen aurrera egiteko. Begoña Errasti aramaioarrak ondo gogoratzen du –Unai Elorza erabiltzailearen ama da–: "Unaik 3 urte zituela Seminario zaharreko lokal txiki batera joaten ginen, errehabilitazioa jasotzera. Arrasateko Oñatitik... joaten ginen familia gutxi batzuk". Ondoren, Arrasateko Ikastolan hasi zen: "Baina beste garai batzuk ziren eta ez zegoen gaur egungo laguntzarik. Azkenean, Bergaran hasi zen, Aspaceko gela batean".

Ikuspegi integratzailea

80ko hamarkadako lehenengo urteetan, Eusko Jaurlaritzak hezkuntza bereziko plana aurkeztu zuen, eta eskolarekin lehen harremanak hasi ziren, ikuspegi integratzailearekin. Abian jarri zituzten hezkuntza bereziko koordinazio zentroak, eta lurralde mailan Gipuzkoa Aspace izan zen koordinazio zentroa. Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, 1986an, Lehen Hezkuntzako ituna

Ondoko orrian, ezkerrean, eguneko zentroan lanean. Ondoko orrian, eskuman, saskiak egiten. Goian, ezkerrean, etxebizitzetako arropak tolesten. Goian, eskuman, Udalaiz zentroko erabiltzaile bat eta langile bat.



Ezkerrean, Bergarako egoitzako erabiltzaileak mahai-jolasean. Eskuman, Arrasateko Udalaitez zentroa inauguratu zuten eguna.

sinatu zuen Aspace Gipuzkoarekin; ondorioz, 23 gela itundu sortu zituzten.

Bergaran Ibai-Ondo zentroa sortu zuten, 1989an; eta eskolaratze etapako zentroa, San Martin Agirre eskolan, 1991n. Gipuzkoako lehenengo gela egonkorra Eskoriatzan zabaldu zuten, 2014an: Luis Ezeiza eskola publikoan, Tximeleta Gela. Gela horretan, garun paralisia duten umeak gainontzeko umeekin daude. Aspaceko zuzendaritzako kide eta Urdin Mendiola erabiltzailearen ama Lukene Igartua: "Sozializaziorako, ezagutzeko eta gizartea egiteko, umeek eskolan egon behar dute. Ezin da inklusioaz hitz egin eta alboratuta izan zenbait pertsona. Guraso bezala hori eskatzen dut, eta baita profesional moduan ere". 2018ko irailean Arrasateko Musakola Institutuko gela egonkorra zabaldu zuten.

Eguneko zentroa eta etxebizitzak

Gizarteak, aurrera egin ahala, aldaketa handiak izan ditu, eta baita behar berriak sortu ere. Garun paralisia duten pertsona nagusien bizi-kalitatea hobetzeko, eguneko zentroak sortu zituzten.

Bergarakoa 2005ean sortu zuten, Oxirondo 3an. Arrasatekoa, aldiz, 2008an sortu zen. Bi zerbitzu eskaintzen ditu Arrasateko Udalaitez zentroak: alde batetik, eguneko zentroa da, eta, bestetik, etxebizitza zerbitzua eskaintzen du. Ana Agirre da Udalaitez zentroko arduraduna azkeneko bost urteetan: "Garun paralisia dutenendako eta euren familiendako erantzuna da, irteera bat. Etxebizitzan hogeit hamar pertsona bizi dira, eta beste bi plaza aldi baterako dira: familien behararen arabera. Eguneko zentroan 09:00etatik 17:00etara egoten dira, eta bi aktibitate berezi egiten dituzte: garbitegi zerbitzua eta zumezaintza".

"Helburua da gure kolektiboaren bizi-kalitatea garatzea, garun paralisia dutenena eta euren familia. Etxebizitza, adibidez, oso errekurtso ona da. Familia askok ezin duten euren etxean zaindu semea, alaba, arreba... Hortaz, hemen zaintzen da. Beste batzuek etxean zaindu dezakete, bana eguneko zentroaren aukera dute", azaldu du Agirrek.

"Familia bat bezala gara, lagun asko egin ditut"

UNAI ELORZA ERABILTZAILEA

46 urte ditu Unai Elorza arrasatearrak. 3 urterekin hasi zen Aspace erabiltzen, Bergaran. Egun, Arrasateko eguneko zentroko erabiltzailea da.

Nolako esperientzia izan da Aspaceko erabiltzailea izatea?

Ona, konforme nabil ni. Egia esan, gauza asko ikasi ditut bertan. Familia bat bezala gara, lagunarte bat... Lagun asko egin ditut. Bazkalondoren kafea hartzera joaten gara, bai lehen Bergaran eta baita orain Arrasaten ere.

Zer egiten duzu egunerokoan?

Nik, adibidez, zentroko telefonoa hartzen dut; norbaitek deituz gero nire lana da telefonoa hartzea. Horrez gain, guk etxebizitzako arropak garbitzen ditugu: horiek tolestu eta saskiak egiten ditugu. Ondoren, gimnasia egiten dugu, seiko taldeetan. Bazkaltzeko orduan mahaia ere guk ipintzen dugu, eta baita jaso ere. 15:00ak arte paseo bat egitera joaten gara, edo kafea hartu... Bakoitzak nahi duena egiten du. Arratsaldean arropak prestatzen ditugu, eta, denbora izaten badugu, gai bat lantzen dugu: gure artean debateak sortzen ditugu, kekak...

Aste bukaeran zer egiten duzu?

Aspace itxita egoten da. Lehen, boluntario talde batekin ekintzak egiten genituen, baina orain ez, pandemiagatik ez.



Zer gustatzen zaizun gehien?

Gehien gustatzen zaidana da kalean ibiltzea, giro onarekin, tragotxo bat hartu... Kalean ibiltzea asko gustatzen zait.

Udako oporretara ere elkarrekin joaten zarete?

Bai; nahi duenak aukera dauka Aspacetik oporretara joateko. Lehen, Benidormera joaten ginen, baina pasatzen genuen egun osoa autobusean hara joateko eta beste egun oso bat etortzeko. Hortaz, orain joaten gara Logroñora, Salamancara... Aurten, adibidez, banuen gogoia oporretara joateko, baina, azkenean, COVIDaren beldurragatik, oporretara ez joatea erabaki nuen. Datorren urtean badut joateko asmoa, bi aldiz pentsatu barik!

"Hezkuntza ez da geletara mugatzen"

AGURTZANE MARTINEZ MU-KO BOLUNTARIOTZAREN ARDURADUNA

Martinezek 2011n jaso zuen Aspaceren aldetik boluntariotza programa bat garatzeko eskaera. Ikusi zuen Huhezin garatu nahi zuten formakuntzarako oso proiektu interesgarria izan zitekeela: "Huhezin pentsatzen dugu hezkuntza ez dela geletara mugatu behar". Ikasleen artean



boluntarioak eskatu zituzten eta talde polita sortu zuten. Ondoren, boluntariotza hori euren ikaskuntza zerbitzuan sartu zuten. "Ikasleen lana pertsonen garapenean laguntzea ere bada", dio Martinezek. "Komunitate hau guztiontzat da, ez bakarrik gaitasun handiak ditugunontzat", gaineratu du. Pandemiak programa gelditu duen arren, otsailean berriro ekingo diote.



Gizarteak dituen erronkak

Agirrek etorkizuneko erronka nagusi moduan zahartzaroa ikusten du: "Lehen, gure kolektiboa lehenago hiltzen zen, eta gaur egun lortzen ari gara edade handiak. Zahartzaroan pentsatu behar dugu, zahartzaro berezia delako; bestalde, garatu eta proiektatu egin behar ditugu eskubideak, orain arte eskubide bako kolektiboa izan da eta; beste erronka bat afektibitatea eta sexualitatea lantzea izango litzateke; etxebizitzaren kasuan, gehiago beharko genituzke. Esango nuke goia jo dugula;

komunitatean gehiago sartzea, gizarte-inklusio handiagoa ere lortu beharko genuke; eta irisgarritasuna. Horiek dira erronka nagusiak".

Aisialdiaren garrantziaz dihardu, aldiz, Igartuak: "Boluntario sare bat antolatu beharko litzateke. Populazio talde batek behar izugarriak ditu. Sozializazioa ez da behar moduan ikusten... baina kiroldegi gehienak diruz lagunduta badaude; zergatik ez dugu diruz laguntzen horrelako pertsona bat paseora ateratzea?".

Eskoriatzako Luis Ezeiza eskolako Tximeletako Gelako umeak, patioan.

"Begirada zabaldu nahi dugu"

AITOR AIZPURI ARRASATEKO INSTITUTUKO IRAKASLEA

Arrasateko Institutuan DBHko irakaslea da Aizpuru. Garun paralisia duten sei ikasle ditu. **Arrasateko gelan ze oinarri dituzue lan egiteko?** Parte-hartzea, autonomia eta komunikazioa dira gure oinarriak. Bakoitzaren beharretara egokituta lan egiten dugu; indibidualetik, baina helburu komunak partekatzen. Postura aldaketak egiten ditugu, ariketa bisualak, ukimena lantzen dugu, dastamena... Adibidez, ariketa oso polita izaten da ondoko gelakoekin partekatzen dugunean dastamenaren ariketa.



Institutuko gainerako geletan partekatzen dituzue ekintzak?

Hori da asmoa. Errealitatea da gaur egun beheko solairukoekin partekatzen dugula, irisgarritasunagatik.

Erabiltzaileei nola eragiten die bizi-kalitatean?

Parte-hartze, autonomia eta komunikazio horretan guretako garrantzitsua da institutuaren parte sentitzea, hemen gaudelako eta ikusgarri gaudelako. Bestalde, gainontzekoekin harremana sustatu nahi dugu, eta begirada zabaldu. Guretako ona da berdinkideekin egotea; baina baita gainontzekoendako ere. **Ze erronka dituzue?** Holako proiektuak eta gelak ezagutzera ematea. Institutuetan gela gutxiago daude, gehiago daude Lehen Hezkuntzan. Horrez gain, normalizazioa lortu eta gizartean eragitea: bai Aspacetik eta baita komunitate osotik ere.

"Tximeleta Gela opari bat izan zen"

LUKENE IGARTUA URDIN MENDIOLAREN AMA

Urdin Mendiola oñatiarra garun paralsiarekin jaio zen, orain dela 16 urte; hala, txikitatik izan da Aspaceko erabiltzailea. Lukene Igartua amak azaldu du euren errealitatea.

Erabiltzaile moduan, noiz izan zenuten lehenengo hartu-emanak?

Jaio aurretik ikusi zuten arazoak zituela; hala, 6 hilabete zituenean esan ziguten Aspacera bideratzeko. Momentu gogorra izan zen: zuk ikusten duzu ez dabilela garatzen besteen moduan, baina... Momentu hartan, Aspacek eskaintzen ziguna zen estimulazio goiztiarra. Lehenengo hiru urteetan fisioarekin egiten genituen saioak: helburua zen guri erakustea egunerokoa nola lagundu genezakeen. 6 bat urterekin hasi zen Aspaceko gelan, Bergarako Ibai-Ondon. LHko bigarren mailan esan ziguten bere gaitasunak eskolan egiten ziren aktibitatearekin ez zetozela bat eta hobe zela Aspacen egotea eskolaratuta egun osoan. Guk esaten genuen gaitasun aldetik eskolak eskaintzen ziona ez zela asko, baina sozializazio aldatik baietz. Bai berarendako eta baita besteendako ere. Hala Tximeleta Gela sortu zen eta baietz esan genuen. **Zer topatu duzue Aspacen?** Ikusten dugu eskoletan badaudela irakasleak zailtasunak dituztenei laguntzeko, baina gaur laguntzen diote zailtasun mota

bat dutenei eta hurrengoan beste zailtasun mota bat dutenei. Hori ez da espezializazioa, eta zailtasunak dituzten umeak askotarikoak dira: itsuak, autismoa, motor arazoak dituena... Bakoitzaren beharrak ezagutzera da garrantzitsua. Alde horretatik, espezializazio baten beharra dago, eta guri hori Aspacek

Tximeleta Gelaren sorrerak zer ekarri zuen?

Adibidez, Arrasateko Eroskira joan eta bi ume etortzea Urdin agurtzera; bera ezagutzen dute, ez datoz ni ezagutzen nautelako! Hori oso pozgarria da. Guk Urdin Errekaldera eramaten genuen, eta hori Oñatin ere bageneukan. Baina esaten dizutenean zentro



eskaintzen digu. Hori kontuan hartuta, eskola prestatu egin behar da. Uste dut oso ondo lortu zela hori Eskoriatzako Tximeleta Gelan. Lehenengo urtean kanpora lo egitera joango zirela esan zigutenean, ba... Inoiz joan barik zegoen. Posible izan zen, eta hori guretako oso pozgarria izan zen.

"FAMILIEK BETETZEN EZ DUTEN LEKUA BOLUNTARIOEK BETETZEN DUTE"

berezi batera joan beharko duela, eta bizitza osorako izango dela... Eskoriatzan hastea opari bat izan zen guretako! **Boluntarioen lana nola baloratzen duzu?** Ez dut hitzik hori baloratzeko. Orain, pandemiarekin, boluntario gutxi daude, eta beharrezkoak dira. Momentu honetan, familiek betetzen ez duten lekua boluntarioek betetzen dute eta, ez baldin badago boluntariorik, bete barik geratzen da. Sozializazioa geratzen da familien esku.